hernaniko
ibilbide morea

Hernaniko Udala

berdintasun kontseilua





hernaniko
ibilbide morea







Bidelaguntza: Parean Elkartea
Ilustratzailea: Shu Otero


AURKI
BIDEA

06 Sarrera

09 Ibilbide morea

12

12 Andre kalea
14 Azaroak 25 plaza
16 Aimar Elosegi Ansa “Moio” kalea
18 Joxepa Zubeldia Elizegi kioskoa
20 Leoka garbitokia
22 Ibarrolaburu-Lorenza plaza
24 Industriako emakume langileen pasealekua
26 Carmen Adarraga parkea
28 Kulturarteko Plaza Feminista
30 Dionixi Lizeaga Agerre

Sarrera

Historiaren joan etorrian ahaztuenak izan gara beti emakumeak eta LGBT pertsonak. Gure kale eta plazen izendegia eredu patriarkal horren lekuko da eta gizonak dira jaun eta jabe. Egoera irauli nahian, Hernaniko Berdintasun Kontseiluak urteak daramatza kale izendegia aztertu eta aldaketak proposatzen. Lehenik, Andre kalea berreskuratu zen, ondoren etorri ziren Carmen Adarraga parkea, Azaroak 25 plaza edota Aimar Elosegi Ansa "Moio" kalea.

Orain, Hernanin barrena egindako ibilbide more honekin beste urrats bat eman eta gure herriko historiarekin zerikusia izan duten emakumeei eta pertsona trans bati egin nahi diegu omenaldia. Pausoz pauso, Hernaniko erreferenteok historiari egindako ekarpena aitortu eta ezagutzera eman nahi du ibilbide honek.






IBILBIDE MOREA

Ibilbide morea

ANDRE KALEA	01
AZAROAK 25 PLAZA	02
AIMAR ELOSEGI ANSA “MOIO” KALEA	03
JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI KIOSKOA	04
LEOKA GARBITOKIA	05
IBARROLABURU-LORENZA PLAZA	06
INDUSTRIAKO EMAKUME LANGILEEN PASEALEKUA	07
CARMEN ADARRAGA PARKEA	08
KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTA	09
DIONIXI LIZEAGA AGERRE	10




08
09
Florida auzoa
Elkano kalea
Txirrita kalea
03
02
04
Andre kale
Kale Nagusia
Aizieta kalea
Izpizua kalea
01
05
06
Aizieta kalea
Oleta pl.
07
GI-3410
GI-3410
10
PAGOAGA AUZOA

Andre kalea

Hernaniko alde zaharrean, Kale Nagusiaren albo batean, 2014. urteaz geroztik Andre kalea izena daraman kalea dago. Emakumeek Hernaniko herrian izan duten presentzia aitortu eta emakumeak errekonozitzeko helburuz egin zen aldaketa.

Ahozko transmisioari esker jakin, badakigu, lehenengo Urumea eta ondoren Kardaberaz izenez ezaguna zen kalea, hernaniar askorentzat Andrekale gisa zela ezaguna. Agiri historikoetan ere bada Andre kaleren arrastoren bat edo beste.

Alde zaharreko kale honek zituen berezitasun sozio-kulturaletan dago Andre kalea izenaren arrazoia eta jatorria, uste baita karrika honetan bildu eta bertan egiten zutela bizitza soziala garai bateko hernaniar emakumeek. Hainbat azalpen daude horren atzean, besteak beste: arropa garbitzaile askoren bizitokia zela diote, eta, beraz, herriko dirudunak Andre kalera joaten zirela arropa-garbitzaileei beren jantziak uztera, Leokako garbitokian garbi zitzaten. Era berean, garai batean, ohitura handia zegoen aulkiak etxetik jaitsi eta kalean esertzeko, konpainian, josketa lanak edo bestelakoak egiteko eta Andre kalea gune aproposa zen emakumeen ofizioetarako. Lana egiteaz gainera, ohikoak ziren, gerora, emakumeen arteko berriketaldiak eta jolasak. Horrexegatik, gerora, Urumea kaleko festa antolatzerakoan, emakumeen arteko karta jolasa berreskuratu zuten.

Arkitektonikoki ere badira kalearen izendapena azaltzen duten arrazoiak, izan ere, bi atariko etxeak dira nagusi Hernaniko alde zaharrean, eta horrek "gune publikoa" eta "pribatua" bereizita mantentzea errazten du. Herritarren arabera, baliteke generoaren araberako kaleen banaketa egon izana; gainera, baliteke generoaren araberako kaleen banaketa egotea; hau da, Kale Nagusia, dotoreena, gizonezkoena, Andre kalea emakumeena eta Antzieta kalea animaliena, bertan egiten baitzen animalien azoka.

Ziur, arrazoi guztiek badutela egiatik eta, kale izenaren arrazoia bata ala bestea izan, agerikoa da garaiko jendartearen aztarna bizia dela Andre kalea. Karrika horretan emakumeek izan zuten presentziaren lekuko da Andre kalea eta emakumeen historia ezagutu eta azaleratzeko bide eman du. Izan ere, Hernaniko emakumeen oroimen historikoa berreskuratzeko lehen urratsa izan da. Kaleaz gainera, izen bera daraman dokumentala ere ekoiztu zen, hernaniar emakume askok parte hartu zuten proiektua izan zen gainera.


ANDRE K


ASERRE
AUDE
INDARKERIARIK
GABEKO
BIZITZAK
NAZKATUTA
GAUDE!
ASKI
DA

Azaroak 25 Plaza

Azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Eguna da eta Dominikar Errepublikan, 1960ko azaroaren 25ean, Leonidas Trujilloren diktadurapean hil zituzten Mirabal ahizpen omenez ospatzen da egun hau.

1950eko hamarkadan, Minerva, Maria Teresa eta Patria Mirabal ahizpak tinko borrokatu ziren Dominikar Errepublikan Leonidas Trujillo diktadorearen erregimenaren aurka. Behin baino gehiagotan espetxeratu, bortxatu eta torturatu zituzten, baina, hala eta guztiz ere, ez zuten etsi euren borrokan.

1960ko azaroaren 25ean senarrak bisitatzera joan ziren Minerva eta Maria Teresa, baita Patria ere. Espetxetik etxerakoan, Inteligentzia Militarraren Zerbitzuko heriotza-eskuadroi batek gelditu zituen errepidean, auto batera igoarazi eta hil egin zituzten hiruak.

1981ean izendatu zuten, Mirabal ahizpen omenez, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Estrainakoz Latinoamerikako lehenengo topaketa feministetan izan zen eta, ondoren, 1999. urteko abenduaren 17an, Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen kontrako bortizkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna" izendatu zuen.

Ordutik indarkeria matxistaren kontrako aldarri ozena bihurtu da eguna. Indarkeria matxista generoan oinarritutako biolentzia-ekintza oro da, kalte fisiko, sexual edo psikikoak sortu edo gertatzeko bidean jartzen duena. Biolentzia horren muturreko adierazleak argi ikusi eta salatzeko gai garen arren, jendartean bada eginbeharra oraindik ere adierazle lausoagoak diren horiek detektatu eta haiei aurre egiteko.

Hernani ez dago indarkeria matxistatik salbu. Gauden tokian bertan, indarkeria matxistak eraildako Txaro Romanen omenez mugimendu feministak morez margotutako jarlekua dugu. Txarok plaza honetan bertan eman zuen bere azken hatsa, baina izan dadila hura indarkeria matxistaren aurkako borrokaren aldeko ufada.

Aimar Elosegi Ansa “Moio” kalea

“Izan nahi zuena izateko oztopo sozialak gainditu ezinik bere buruaz beste egin zuen transexuala”. Horixe dio Aimar Elosegi Ansa ‘Moio’ kalean jarritako plakak. 2007. urtean, bere buruaz beste egin zuen gazte hernaniarra zen ‘Moio’. 21 urte besterik ez zituen eta pertsona transa zen. Haren heriotzak astindua eragin zuen gizartearengan, Hernaniko herria transfobiaren aurka esnaraztea lortzeraino.

Berari esker, gizon eta emakume, neska eta mutil, genitalei lotutako kategoria naturalak baino eraikuntza sozialak direla ikasiz joan gara. Generoaren lausotasun eta malgutasuna irakasbide bihurtu du Aimarren heriotzak eta hura ez ahazteko eta des-ikasten jarraitzeko kale izena eman nahi izan diogu.

“Izena duena, badela” erakutsi ziguten aspaldi eta trans kolektiboa ikusaraztea eta herri gisa memoria ariketa egitea da kale honen asmoa, bai Aimarrengatik, bai guztiongatik ere. Pertsona askeak izateko bidean, urratsa eta geltokia izan nahi du kaleak.

Kalea bihurtzeaz gainera, Moioren bizitza eta haren heriotzak eragindako eztanda liburu batean jaso zuen Kattalin Miner hernaniar militante feminista eta Moioren lagunak. “Moio. Gordetzea ezinezkoa zen” du izenburua liburuak, eta gure jendartean, oraindik ere, tabuak diren suizidioa eta trans kolektiboa hartzen ditu hizpide.





Hernaniko Ibilbide Morea

Joxepa Zubeldia Elizegi kioskoa

Joxepa, 1867. urteko martxoaren 19an, jaio zen Hernaniko Ibarluze baserrian. Baserria dagoeneko ez dagoen arren, haren izena daraman poligonoan zegoen. Umetan, baserriko produktuak saltzeko, Donostiara joaten zen egunero, auzoko beste baserritar batzuekin batera astoan edo zaldian.

Ibarluze baserriaren jabea baina, Madrilgo mediku entzutetsu bat zen eta ohitura zuen baserriko alabak Madrilera, nagusien etxera, neskame eramatekoa. Aurrena, bere ahizpa Maria eraman zuen eta gero, Joxepa bera, oraindik neskatoa zela. Neskametzatik ateratzeko modua ezkontzea zen eta han ezagutu zuen bere senarra izango zena, Manuel Ortiz Martinez, izatez Burgosko Mena Haranekoa. Madrilen ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten bertan. 1904 inguruan Hernanira itzuli ziren eta hemen jaio ziren azken bi alabak. Hasieran, Portu auzoko Iztil-Artenean bizi izan ziren, baina, ondoren, Kale Nagusia hartu zuten bizitoki.

Kale Nagusian ireki zuen lanbide hartu zuen janari-denda. Senarra mehatzeetan lan egina zen eta erabat gaixo zegoen, asmak jota ezin zuen arnasarik ere hartu. Joxepak seme-alabak hazi eta berak bakarrik jarri eta atera zuen aurrera denda.

Madrilera oso gazte joan bazen ere, euskarari gogor eutsi zion Joxepak eta, gizonak euskaraz ikasi ez zuen arren, etxean seme-alabek dena egiten zuten euskaraz, baita Madrilen jaiotakoek ere.

Joxepak oso gustukoa zuen idaztea eta, beti, aritzen zen luma eta tinteroarekin poesiak, errezoak eta bertsoak idazten. Elizan kantatzen diren kantu batzuen hitzak Joxeparenak zirela uste da.

Etxean alabek ez ziotenez idazten uzten, bere lagun Luisa bizi zen Barkaiztegi baserrira joaten zen. Urtean bizpahiru aldiz egiten zion bisita, gehienetan udan eta pare bat aste igarotzen zituen bertan. Zahartu aurretik oinez joaten zen, gero, astoan edo gurdian. Han gordetzen zituen bere bertsoak, ganbarako kutxa batean. Joxeparen bilobak kutxa hori bilatzen saiatu ziren, baina ez zuten aurkitu, ustez Joxepa hil ondoren bere alabek erre zutelako. Alabak asko lotsatzen ziren bere ama bertsolaria zelako eta jendaurrean kantatzen zuelako.

Bertso asko idatzi zituen arren sorta bakarra gorde da, 1918an Hernaniko erietxera baztanga zuten gaixoak ekarri behar zituztela-eta izandako matxinadari buruzkoa. Garaipena ospatzeko Hernaniko Ezkiaga pasealekuan egindako herri bazkarian, mahai gainera igota, kantatu zituen sortako 24 bertsoak. Eguberritan eta Sanjoanetan ere Kale Nagusiko bere balkoitik ere aritzen zen bertsotan, kaletik zihoazen beste bertsolariei erantzunez.



Leoka garbitokia

Etxeetan urik eta, noski, garbigailurik ere ez zegoenean, garbitokietara joan behar izaten zen arropa garbitzera. Eta garbitokiak berak baino ere lehenago, ibaiak eta errekak erabiltzen ziren lan gogor-gogor hartarako, eta normalean emakume oso pobreek egiten zuten, bizitzeko beste baliabiderik ez zutenek. Hernanin Leokako garbitokia zen garrantzitsuenetakoa.

Arropa garbitzaileek beste etxe batzuetarako egiten zuten lan, beren etxeko arropak garbitzeaz gain. Arropa pieza bakoitzeko kobratzen zuten, eta haien ardurapean zegoen arropak ez hondatzea. Jabeen etxean bertan jaso zezaketen arropa edo jabeek eurek garbitzaileengana eraman zezaketen. Hernaniko alde zaharreko Andre kalean arropa garbitzaile asko bizi omen zela esaten da eta arrazoi horrekin lotzen dute batzuek Andre kale izenaren arrazoia. Behin arropa bilduta, garbitokiraino edo errekaraino garraiatzen zuten, eta han igurzten eta garbitzen zuten, ur izoztutan zenbaitetan, eskuak guztiz hondatzeraino, ospelez beterik; beste zenbaitetan, eguzki goxoagoaren azpian. Gero, eguzkitan lehortzen uzten zituzten arropak, zuritzeko. Ondoren, etxeetara itzultzen zituzten arropak, hurrengo neskamea etorri arte, jostuna (zerbait konpondu behar bazen) edo plantxatzailea. Batzuetan etxeko neskame bat izaten zen, eta beste batzuetan, kanpoko bat. Edonola ere, fisikoki oso lan gogorra zen hura ere.

Baina garbitokia emakumeen gune bat zen. Han, emakumeak, asko eta asko neskameak, elkartu egiten ziren, sozializatu, beren etxekoandreen kontuak kontatzen zizkioten elkarri, edota politika egiten zuten.

Leoka garbitokia Elizatxo auzorako jaitsieran dago. 1538an eraiki zuten lehen aldiz iturriaren inguruan, eta 1664an eraberritu. Gerora, hainbat esku-hartze izan ziren, 1728 eta 1896 urteetan, egungo garbitokia 1916an eraiki zen arte.

Hainbat urtez emakumeen lanleku eta topaleku garrantzitsu izatetik, abandonatua izatera pasatu zen. 2000. urtean Langile ikastolako ikasle, irakasle eta langileek espazioa garbitu eta bere historia jaso zuten. Ondoren, garbitzaileen lan gogor eta inbisibilizatua omentzeko Berdintasun Kontseiluak hartu zuen eraikin xume hau zaindu eta gordetzeko testigua eta, Leoka emakumeentzat berreskuratuz, Jabetze Eskolei hasiera ematen zaie bertan urtero.

Ibarrolaburu-Lorenza Plaza

Hernaniko Portu auzoak, izenak adierazten duen bezala, garai batean Urumea ibaiaren ibilbidean zehar merkantziak garraiatzea errazten zuen ontziraleku zahar batean du jatorria. Ibarreko burdinoletan manufakturatutako burdinarekin edota bertako basoetako zurarekin betetako txalupak bidaltzen zituzten Urumean behera. Ibai merkataritza horrek industria garapen zabala ekarri zuen Hernanira eta, ondorioz, baita langile askoren etorrera ere.

Portu auzoko bihotzean den plaza langile horien aterpe eta etxe bihurtu zen, izan ere, Javier Ibarrolaburu hil zenean, 1954. urtean, haren emazte M. Cruz Lorenza Lasherasek 50.000 pezetako diru ekarpena egin zion eta, horrela, Hernaniko Udalari Portuko auzoan langileentzako etxebizitza merkeak eraikitzeko eskaria egin.

Etxe horiek eraiki ziren Hernaniko langileen bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta M. Cruz Lorenzak izandako keinuari esker onez, etxegunean sortutako plazari Ibarrolaburu plaza deitura jarri zioten. Hasiera batean, M. Cruz Lorenza alde batera utzi bazen ere, diru ekarpenean zein etxeen eraikuntzan izan zuen paper garrantzitsuagatik, plazari bien izena ematea egokiago dela ondorioztatu du Hernaniko Udalak. Beraz, gaurtik aurrera, Ibarrolaburu-Lorenza plaza izango da garapen industriala posible egin zuten Portu auzoko langileen bizitoki bihurtu zen plaza.





Industriako emakume langileen pasealekua

Industriako lana gizonen eremua zela uste bada ere, emakumeek industrian lan eskerga egin dute. 1939 eta 1975 urteen artean Euskal Herrian zein Hernanin, sekulako industria garapena gertatu zen eta horrek, etorkin askoren etorrerarekin batera, emakumeen lan munduratzea eragin zuen. Finean, industriak eskulan merkea behar zuen, eta hutsune hori betetzeko emakumeak kontratatu ziren.

Sexuan oinarritutako lan banaketa argia zen eta emakumeek prestigio gutxiko eta kualifikatu gabeko lanak egiten zituzten. Bereziki joskintza tailerretan eta paper fabriketan aritzen ziren lanean. Horren truke, gainera, soldata baxuagoak jasotzen zituzten eta lan-baldintza kaskarragoak. Emakumeek ikasteko eskubiderik ere ez zutenez, ez zuten garapen profesionalerako aukerarik izaten.

Iruditeriak emakumea sexu ahultzat jo badu ere, erruz eta gogor lan egin dute emakumeek historian zehar, 10 edota 12 urterekin hasi eta hezurrek ahal zuten arte egiten zuten lan. 1936ko gerra osteko urte haietan eskasia eta gosea oso presente zegoen Hernanin eta, beraz, hari aurre egiteko umetan hasten ziren emakumeak lanean, eskola albo batera utziz.

Fabriketako lanaz gainera, etxean ere jarraitzen zuen lanak, izan ere, hamabi lanorduko lanaldiekin ere zaila zen aurrera egitea beharra nagusi zen testuinguru hartan. Sos gehiago ateratzeko bidea zen, adibidez, zelofan poltsak etxean ekoiztea. Esku-lanak emakumeen lanak kontsideratzen ziren eta, lan eskubiderik gabe, beltzean eta produkzioaren arabera ordaindua zen lan hori. Hernaniko emakume asko eta asko aritu da lan horretan, bereziki ezkondutakoak, izan ere, horiek ez zituzten fabriketan onartzen.

Lana, lana eta lana; eta etxera iritsitakoan ere, etxeko lanak eta familiako kideen zaintza zuten zain, izan ere, hori baitzen emakumeen betebeharra.

Frankismoaren akaberan, langile klasea, oro har, eta emakumeak zehazki, antolatzen eta borrokatzen hasi ziren eta egun lortutako eskubideen oinarrian daude orduko borroka haiek. Hasieran, Frankismoaren baitako “Sindicato Vertical” taldean antolatzen hasi ziren, baina gero, emakumeen artean antolatzeari ekin zioten, lantegi eta gremioen artean, klase gisa, diskriminazioa talde modura sufritzen zutenez, erantzuna ere kolektiboa izan zedin. Emakumeek euren zapalkuntzaz jabetu eta eskubide berdintasuna aldarrikatzen hasi ziren garai horretan. Langileen arteko batasuna eta elkartasuna izugarria zen eta erresistentzia kutxen bidez luzeak izan ziren orduko greba mugagabeak.

Bereziki esanguratsua izan zen Hernaniko Papelera de Zicuñaga S.A. lantegiko emakumeek, soldata jaitsi zietelako eta baldintza duinak eskatuz, 1967an abiatutako greba.

Carmen Adarraga Elizaran Parkea

1921eko uztailaren 5ean jaio zen Carmen Adarraga Elizaran, hamabi anai-arrebez osatutako Hernaniko familia zabal batean. “Adarragatar kirolariak” ezizenez ziren ezagunak, kiroletan oso abilak zirelako gehienak. Juan Bautista anaia, adibidez, Londreseko Olinpiar Jokoetan parte hartzera iritsi zen eta hari zor dio Hernaniko kirol klubak bere ikurrean Nazioarteko Batzorde Olinpikoa ordezkatzen duten bost uztaiak erakusteko aukera.

Talde kirola zuen gustukoen Carmen Adarragak. Saskibaloian Hernanin izandako lehen taldea berak sortu zuen, gizonen talderik ere ez zegoenean. Espainiako saskibaloi selekzioaren historian lehengo kapitaina izan zen Carmen eta hiru aldiz izan zen Espainiako txapeldun saskibaloian, Donostiako emakumezkoen taldearekin. Eskubaloi eta belar hockeyan ere oso jokalari ona izan zen, Espainiako bi selekzioetan aritu zen eta estatuko txapeldunorde izatera heldu zen eskubaloian.

Carmen bizi izan zen garaian emakumeek kirola egitea oso gaizki ikusita egoteaz gainera, ondoren ezarriko zen Erregimen Frankista kirola debekatzeraino heldu zen. Baina Carmenen izaera kirolzale honi esker ordura arte gizonena zen esparrua menderatzea lortu zuen. 2016tik emakume kirolariak ikusaraztea helburu duen Gipuzkoako Aldundiaren sari bati ematen dio izena Carmen Adarragak. Orain arteko Carmen Adarraga sariak Coro Fuentes atletarentzat, Mari Ayestaran belar hockey entrenatzailearentzat, 1917 eta 1980 artean profesionalki jokatu zuten emakume erraketistentzat, Nieves Alza Txingudi saskibaloi taldeko lehendakariarentzat, Arantxa del Puerto Astiz futbolariarentzat eta Carmen Diez Mintegi antropologoarentzat izan dira.

Hernaniko herriak ere, Carmen Adarragaren ekarpena goraipatu eta denboran mantentzeko helburuz, bere izena jarri dio atletismoko pisten ondoan dagoen parkeari.

Carmen kirolaria izateaz gainera, emakume langilea ere izan zen. Anai-arreben artean, Carmen izan zen aitak sortutako Adarraga gozo-denda entzutetsuaren administrazioarekin jarraitu zuena, eta horrek lotu zuen Hernanirekin bere bizitza osoan. Hasiera batean Adarraga txokolateak ziren egun Urbieta kalean dagoen gozo-denda maitatuaren sorburua. Baina Carmen ez zen bakarrik familiaren negozioan aritu, Irazusta zinemako txartel-saltzaile ere izan zen eta Hernaniko Kale Nagusiko janari-denda bat ere izan zuen. Oso emakume langilea izan zen, eta bost seme-alabaren ama ere izan zen Carmen. Haren seme-alabek ere amak kirolarekiko zuen pasioa jaso zuten.



Kulturarteko Plaza Feminista

2021eko irailaren 11n ireki zen Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista, feminismoaren alde eta arrazakeriaren aurka lan egiteko erreferentziazko espazio gisa.

Hernaniko emakumeek aspaldi egindako aldarrikapena zen Emakumeen Etxearena, eta askotariko prozesu eta urratsek gorpuztu dute hausnartzeko, formatzeko, artikulatzeko eta saretzeko helburua duen espazioa. Plaza honetan, feminismoaren eta antiarrazakeriaren borrokan diharduten subjektu anitzei tokia egiten zaie.

Hernanin, 2001. urteko apirilean sortu zen Berdintasun Arloa eta harekin batera ia, Berdintasun Kontseilua. Geroztik, feminismoari bultzada eman eta dinamika eta eskaera andana egin ditu Berdintasun Kontseiluak.

Bide horretan, Plaza Feminista mugarri garrantzitsua izan da beti. Udaleko Berdintasun Arloak 2012an Plaza Feminista hartu zuen egoitzatzat. Nahiz eta zerbitzu zabaleko eraikin propioa ez izan, bazen eragile feministentzat erreferentziazko gune eta biltzeko lekua. Baina azkar gelditu zen txiki eta Plaza Feministako esperientzia hark indartu egin zuen proiektu zabalago baten beharra eta aldarrikapena.

2015. urtean Udal gobernuak Emakumeen Etxea egiteko konpromisoa hartu eta espazio berria egokitu zion Florida kaleko 28an.

Ametsak partekatzeko, espazioaren identitateaz hitz egiteko eta etxea elkarrekin eraikitzeko 2016an partaidetza prozesua abiatu zuten Berdintasun Arloak eta Berdintasun Kontseiluak. Parte hartzea zabala izan zen eta elkar ezagutzeko, sareak egiteko eta elkarrekin pentsatzeko aukera paregabea eman zuen prozesuak. Hizketaldi luzeen ondoren, eraikinaren berriztatze eta moldaketa lanak hasi ziren.

Urte batzuen ondoren, eta eraikina erabat eraldatuta, 2021ko irailaren 11n zabaldu zituen ateak. Arkitektura bioklimatikoaren printzipioak erabiliz eraikia, inguruneko baldintza energetikoak aprobetxatuz bere energia kontsumoan eraginkorra den etxea da gainera.

Egun osoan zabalik dago Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista eta askotariko zerbitzu, ekimen eta baliabideak topa daitezke bertan. Gaur-gaurkoz, Emakumeentzako Jabetze Eskola, sexu eta bikote aholkularitza, emakumeentzako aholkularitza juridikoa, elkar zaintzarako talde iraunkorra, dokumentazio gunea, erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak aurki daitezke bertan. Horrez gain, AMHER-SOS Arrazakeriaren bulegoa eta Berdintasun, Kulturartekotasun eta Lankidetza Arloen Udal bulegoa kokatzen dira bertan, eta etxeko koordinatzaileek egun osoz ematen dute arreta eta informazioa.

Kulturarteko Plaza Feminista feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako espazioa da. Hernaniren eta munduaren eraldaketan alea jartzera etorri dena eta hausnarketarako, formakuntzarako eta ekintzetarako erreferentzia gunea izan nahi du.



Dionixi Lizeaga Agerre "Paguako Maixtra"

Emakumeari eman zaion bigarren mailako papera dela eta, neskatoek zailtasun handiak izan dituzte ikasketak egin eta hezkuntza sisteman sartzeko. Ia-ia XIX. mendearen amaierara arte emakumeek ez zuten ikasteko eskubiderik eta hasiera batean Lehen Hezkuntzako ikasketak ziren egin zitzaketen bakarrak. Hala eta guztiz ere, emakumeek ezinbesteko garrantzia izan dute hurrengo belaunaldiei ezagutzak eta balioak transmititzeko orduan eta asko eta asko izan dira irakasle lanetan aritutakoak.

Hernaniar askoren oroimenean da, adibidez, Dionixi Lizeaga Agerre "Paguako maixtra". 1894. urtean jaioa, 40 urtez aritu zen auzoko haurrei eskolak ematen.

Hernaniko Pagoaga auzoa, baso ederrez inguratua, Hernaniko alde zaharretik 10 kilometrora dago kokatua. Auzoan ez zegoen ez elizarik, ezta eskolarik ere, eta bost kilometrora dagoen Ereñotzu bailararaino joan behar zuten haurrek ikasi ahal izateko. Negu gorrian, euripean, lokatzetan eta hotzez, oinez egin behar zituzten joan-etorriak. Baldintza horietan, asko eta asko ziren eskolara huts egiten zuten umeak.

Hamar seme-alabetan helduenetakoa, aitak ikasketak eman nahi izan zizkion Dionixi alabari. Etxean jaso zituen lehen ikasketak, zaintzen zuen neskame baten eskutik, eta ondoren Donostiara eraman zuten ikasketetan sakontzeko xedez. Ikasi ahala, ikasitakoa zabaltzeari ekin zion Dionixik eta Pagoaga auzotik irten ezinik zituen anai-arreba eta bizilagunak hartu zituen ikasle. Etxeko sukaldean abiatu zuen abentura, 1914an Pagoagako eskola sortu arte. Auzoko umeez gainera, Arano herriko neska-mutilak ere izan zituen ikasle lau hamarkadetan zehar.

Eguna eta gaua ematen zuen lanean Dionixik, izan ere, egunez lanean aritu behar ziren gazteei ikasteko aukera eskaintzen zien gau-eskoletan. Iluntzeko eskola ordu horietan baina, neskatorik ez zegoela ohartu zen. Neskato eta emakumeak eguna eta gaua ematen zuten lanean eta haiek ere ikas zezaten igande eta jaiegunetan eskolak emateari ekin zion Dionixik.

Hernanin, Euskal Herrian bezala, emakumeek berebiziko garrantzia izan dute ikastolen sorreran; euskal kulturan eta identitate nazionalean oinarritutako euskara hutsezko eskolen aitzindari asko eta asko emakumeak izan ziren. Ikastolen sorrerak eta haien geroko garapenak, 60ko eta 70eko hamarkadetan, frankismoaren aurkako herri borrokaren testuinguruan kokatu behar dira gainera. Hernaniko Urumea ikastola sortu zen lehenik eta Langile ikastola ondoren.









2023ko martxoa